



2016KO HIRUGARREN HIRUHILEKOKO
EMAITZAK



2016ko urriak 25

Aurkibidea



- Kontratazioa
- Eskarien zorroa
- Eraitza-kontu bateratua
- Aurreikuspenak

Kontratazioa





Kontratazio esanguratsua 2016an

2016an esleitutako kontratu berrien zenbateko osoa 2.500 milioi eurokoa baino gehiagokoa da, horietatik, 2.030 milioi euro irailaren 30ean kontratu irmoak direnei dagokie

(Milioi eurotan)

2014	2015	2016		
1.HH-4.HH	1.HH-4.HH	1.HH	1.HH-2.HH	1.HH-3.HH
1.895	902	789	1.636	2.030

Honako hauek izan dira 2016ko hirugarren hiruilekoan sinatutako eta eskarien zorroan sartutako kontratu nagusiak :

	Quito (Ekuador)
	Mexiko hiria (Mexiko)

Bi kontratuen balio bateratua 300 milioi euro ingurukoa da.

Kontratazio hauek ekitaldiko lehen sei hilekoan jasota zeudenei gehitu behar dizkiegu; horien artean, hauek aipatu behar dira: ARRIVA (Erresuma Batua), FIRST GROUP (Erresuma Batua), MARYLAND (AEB) eta CANBERRA (Australia).

Horrez gain, 2016ko urriaren 3an sinatu da BRUSELAKo metrorako trenak hornitzeko kontratua, zeinen guztizko zenbatekoa, gutxi gorabehera, 353 milioi eurokoa den.

¹ Era honetan lortutako kontratazioa: (Aldi-amaierako zorroa - Aldi-hasierako zorroa + Aldiko salmentak)

Kontratazioa



(jarraipena)

Quito

2016ko uztailaren 15ean, Kreditu Ofizialeko Institutuak (ICO gaztelaniaz) Espainiako Gobernua ordezkatzuz eta Ekuador Errepublikako Finantzen Ministerioak, Quitoko Barruti Metropolitarrako Udalerriak CAFi esleitutako kontratua abian jarriko duen Kreditu Hitzarmena sinatu dute.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- Bakoitzak 6 kotxe izango dituen 18 trenen hornidura, zeintzuk Quitoko metroko lehen linean zirkulatuko duten.
- Ibilgailu, ekipo eta tailerreko erreminten osagarrien eta ordezeko piezen lotearren hornidura.



Mexiko hiria

Sistema de Transporte Colectivo (STC) erakundeak, Mexiko hiriko Metroko 1. linearako errodadura pneumatikoko trenak hornitzeko kontratua sinatu du CAFekin. Hori guztia, Mexiko hiriko Metroa egiten ari den unitateak eta azpiegitura berritzeko proiektuaren baitan kokatu behar da.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- Errodadura pneumatikoko 10 trenen hornidura.



Kontratazioa



(jarraipena)

Brusela

Bruselako Garraio Interkomunalen Sozietateak (MIVB/STIB), Europako hiriburuko garraio publikoaren operadoreak, CAFekin 12 urteko iraupena izango duen esparru-kontratua sinatu du Bruselako metrora bideratuko diren trenak hornitzeko.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak :

- Azken belaunaldiko 43 metro-unitateren hornidura.
- Esparru-kontratua indarrean egongo den bitartean, beste 47 tren arte eskatu ahal izateko aukera.




Eskarien zorroa



Zorroa maximo historikotan dago hirugarren hiruhilekoz jarraian

Zorroa, guztira (M€)

Zorroa / Salmentak Ratioa ⁽¹⁾



2016ko irailaren 30ean, **eskarien zorroak maximo historikoa** lortu du 5.936 milioi euro tara iritsiz, hau da, 2015eko salmenten 4,6x-koa.

Zorro horrek ez du jasotzen 2016ko irailaren 30aren ondoren egindako **kontratazio irmoa**:

- Bruselako metroa (353 M€ gutxi gorabehera)

Gainera, CAFek oraindik 353 milioi euro inguruko guztizko balioa duten eta **sinatzeke dauden esleitutako proiektuak** ditu. Zenbateko honek, Amsterdam hirirako duela gutxi esleitutako tranbienen hornidura biltzen du.

¹ 2016ko hiruhileko bakoitzeko Zorroa / Salmentak ratioa, 2015eko urteko salmenta-zifraren arabera kalkulatuta.

Emitza-kontu bateratua



(Mila eurotan)

	2016 3.HH (9h)	2015 3.HH (9h)	Ald. %
Negozio-zifraren zenbateko garbia	962.552	935.416	% 3
EBITDA	104.158	137.885	-% 24
Ibilgetuaren amortizazioa eta zuzkidurak	(22.632)	(29.925)	-% 24
EBIT	81.526	107.960	-% 24
Finantza-emitza	(39.093)	(56.581)	-% 31
Zergen aurreko emitza	42.433	51.379	-% 17
Irabazien gaineko zerga	(15.433)	(14.574)	% 6
Zergen ondorengo emitza garbia	27.000	36.805	-% 27
Kanpoko bazkideen emitza	(486)	(958)	-% 49
Sozietate nagusiari egoitzitako emitza	26.514	35.847	-% 26

- 2016ko irailaren 30ean, negozio-zifraren zenbateko garbia 962.552 mila eurokoa da; hau da, 2015eko aldi berekoa baino 27.136 mila euro handiagoa (% 3). Igoera hori hirugarren hiruhilekoan industria-jarduerak izan duen susperraldiaren eta zerbitzuen eta seinaleztapenaren arloko salmenten igoeraren ondorioa da. Dibisen aldaketaren inpaktua ez da esanguratsua izan.
- Esportazioari dagokion negozio-zifraren ehunekoa % 78,84koa izan da eta Euskotreneko proiektua da gaur egun abian dagoen Estatu mailako fabrikazio-proiektu azpimarragarri bakarra.
- NSrako (Holanda) 118 treneko proiektua, Euskotreneko, CPTMko eta Toluca aldierako trenak, eta Medellín, Istanbul, Txile eta Helsinkirako metro-unitateak dira 2016ko irailaren 30ean amaitu den 9 hilabeteko aldi honetan abian dauden fabrikazio-proiektu nagusiak.

Emaizta-kontu bateratua



(Mila eurotan)

	2016 3.HH (9h)	2015 3.HH (9h)	Ald. %
Negozio-zifraren zenbateko garbia	962.552	935.416	% 3
EBITDA	104.158	137.885	-% 24
Ibilgetuaren amortizazioa eta zuzkidurak	(22.632)	(29.925)	-% 24
EBIT	81.526	107.960	-% 24
Finantza-emaizta	(39.093)	(56.581)	-% 31
Zergen aurreko emaitza	42.433	51.379	-% 17
Irabazien gaineko zerga	(15.433)	(14.574)	% 6
Zergen ondorengo emaitza garbia	27.000	36.805	-% 27
Kanpoko bazkideen emaitza	(486)	(958)	-% 49
Sozietate nagusiari egoitzitako emaitza	26.514	35.847	-% 26

- 2016ko irailaren 30ean, EBITDA marjina 104.158 mila eurokoa izan da; 2015eko aldi berean, ordea, 137.885 mila eurokoa izan zen, aurtengo zifra % 24 txikiagoa izanik.
- Irabazien gaineko zergaren aurreko ekitaldiko emaitza 42.433 mila eurokoa izan da 2016ko irailaren 30ean; hau da, 2015eko aldi bereko irabazia baino % 17 txikiagoa.
- 2016ko irailaren 30ean, Finantza-emaizta 39.093 mila euroko galerakoa izan da; hau da, 2015eko aldi berekoa baino % 31 txikiagoa. Horretan eragin berezia izan du kanbio-aldaketetan izandako hobekuntzak, zein 21.017 mila eurokoa izan den.
- Zergen ondorengo emaitza garbia 27.000 mila eurokoa izan da 2016ko irailaren 30ean; hau da, 2015eko aldi bereko irabazia baino % 27 txikiagoa.
- Sozietate nagusiari egotzitako emaitza, 2016ko irailaren 30ean, 26.514 mila eurokoa izan da; hau da, 2015eko aldi bereko irabazia baino % 26 txikiagoa.

Aurreikuspenak



UNIFEK, tren-fabrikatzaile nagusiak jasotzen dituen Europako elkarteak, 2016ko irailean argitaratu ditu datoren urteotarako sektorearen aurreikuspenak. Ikerketa horren arabera:

- Jarraipena emango zaie sektorearen bilakaerako aldeko aurreikuspenei, zeintzuk datoren sei urteotarako begira, hazkunde iraunkorra izango dela aurrez ikusi dute.
- Zehatz esanda, guztizko merkatuak 2019-2021 aldian 185 mila milioi euroko urteko bolumena (CAGR=% 2,6) lortuko duela aurrez ikusi dute, merkatu irigarria 122 mila milioi eurotan (CAGR=% 3,2) kokatuko den bitartean.
- Rolling Stockeko eta Zerbitzuetako segmentuak izango dira hazkunde horren bultzatzaile nagusiak. Zehatz esanda, hurrenez hurren, merkatu irigarriko % 37 eta % 32 bilduko dute. Eremu geografikoei dagokienez, mendebaldeko Europak jarraituko du merkatu nagusia eta dinamikoena izaten (CAGR=%3,6).
- Aurreikuspen horiek bat datoz enpresak Europako merkatura eta zerbitzuen sektorera bideratu duen garrantzizko handiagorekin. Horrek jarduera komertzial handiari jarraipena emango dio.

Lege-oharra



Dokumentu honek informazio-helburua du soilik.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitopenen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitzak errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsiotarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritzia dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta alde zuzenetik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eskusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAFek, haren filialek edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa erabat isilpekoak dira eta ezin izango dira CAFek alde zuzenetik idatzizko baimena eman gabe kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki).